



IBR KALIFIKAZIOAK

1.- LEHEN ALDIZ KALIFIKAZIO LORTZEKO BALDINTZAK

Ustialekuko 9 hilabetetik gorako abelgorri guztiei azterketak egin behar zaizkie IBR gaitzaren gE eta gB emaitzak aztertzeko

IBR1

- Ustialekuko animalia batego gE+ emaitza eman duenean.
- Derrigorrezkoa da ustialekuko animalia guztiak txertatzea

IBR3

- Ustialekuko animalia batego gB+ emaitza eman duenean baina gB+ eman duten animalia guztiek gE- eman dutenean.
- Derrigorrezkoa da ustialekuko animalia guztiak txertatzea

(Egoera honetan interesgarriagoa izan daiteke gB+ emaitza eman duten animaliei 21 egunetara frogak errepikatzea, IBR3-T edo IBR4 kalifikazioa eskuratzeko eta modu honetan txertaketaren beharra ekiditeko)

IBR3-T

- IBR3 kalifikazioa edukitzeko baldintzak betetzen dituzten ustialekuak baina aurreko frogatik 21 egunetara edo beranduago, gB+ eman zuten animalia guztiei azterketak errepikatu bazaizkie eta emaitza gB- edo gE- izan bada.
- Debekatuta dago ustialekuko animaliak txertatzea.

IBR4

- Ustialekuko animalia guztiek gB- emaitza eman dutenean.
- Edo eta, gB+ eman duten animalia guztiek gE- eman badute eta duela bi urte baino gehiago txertatu zirela ziurtatu badaiteke.
- Edo eta, gB+ eman duten animalia guztiek gE- eman badute, bi urte baino gehiagoko adina badute eta 21 egunetara edo beranduago azterketa errepikatu eta emaitza gE- bada.
- Debekatuta dago ustialekuko animaliak txertatzea.

Azterketa hauetan arrazoizkoa ez den emaitzaren bat aurkituko balitz, posible da 21 egunetara animalia horri frogak errepikatzea ustialekua kalifikatu aurretik. Frogak errepikatzeke orduan al baitariaren aholkua jarraitu beharko da.



Ustialeku bati lehen aldiz kalifikazioa eman aurretik, kalifikazio hobegoa eskuratu nahi bada, posible da emaitza desegokia eman duten animaliak kendu eta 30 egunetara frogak errepikatzea. Modu honetan animaliak txertatzearen beharra ekiditeko modua egon daiteke.

2.- USTIALEKUEK DUTEN IBR KALIFIKAZIOA HOBEAGOTZEKO BALDINTZAK

Ustialekuek duten IBR kalifikazioa hobegotzeko bideak ondorengoak dira:

- gE+ animaliak kentzea (IBR1, IBR1- eta IBR2 ustialekuen kasuan)
- IBR txertaketaren bidez gE+ animalia berriak agertzea ekiditea (IBR1, IBR1- ustialekuen kasuan)
- IBR txertaketa erabiltzeari uztea (IBR3 ustialekuen kasuan)
- IBR txertaketa erabili gabe 2 urte egotea (IBR3-T ustialekuen kasuan)

IBR kalifikazioa hobegotzeko ekintzak urteroko IBR osasun kanpainan egin daitezke eta baita abeltzainak nahi duenean ere, IBR3, IBR3-T eta IBR4 kalifikazioak eskuratzeko baldintzak betetzen dituela pentsatzen duen kasuetan.

IBR1 IZANDA:

- **IBR1- IZATEKO:**
 - Azkenengo 12 hilabeteetan gE+ animalia berririk ez aurkitzea
 - Ustialekua IBR gaitzaren aurka egoki txertatuta egotea
- **IBR3 IZATEKO:**
 - gE+ emaitza emandako animalia guztiak kentzea
 - Azkenengo gE+ animalia kendu zenetik gutxienez 30 egunetara ustialekuko animalia guztiei frogak egin eta guztiek gE- ematea.
 - Ustialekua IBR gaitzaren aurka egoki txertatuta egotea
- **IBR3-T IZATEKO:**
 - gE+ emaitza emandako animalia guztiak kentzea
 - Azkenengo gE+ animalia kendu zenetik gutxienez 30 egunetara ustialekuko animalia guztiei frogak egin eta guztiek gE- ematea.
 - Ustialekua IBR gaitzaren aurka egoki txertatuta egotea
 - Aurrerantzean IBR txertaketa gehiago ez egin eta IBR4 izateko bidean trantsizioa eskatzea (azkenengo urtean birusaren zirkulazioa antzeman bada ez da gomendagarria)
- **IBR4 IZATEKO:**
 - Ezinezkoa da: IBR4 izateko, azkenengo bi urteetan ez da IBR txertaketarik egin behar. IBR1 ustialekuek animaliak txertatuta eduki behar dituztenez, ezinezkoa da IBR1etik zuzenean IBR4ra pasatzea.



IBR1- IZANDA:

- **IBR2 IZATEKO:**
 - Azkenengo 24 hilabeteetan gE+ animalia berririk ez aurkitzea
 - Ustialekua IBR gaitzaren aurka egoki txertatuta egotea

- **IBR3 IZATEKO:**
 - gE+ emaitza emandako animalia guztiak kentzea
 - Azkenengo gE+ animalia kendu zenetik gutxienez 30 egunetara ustialekuko animalia guztiei frogak egin eta guztiek gE- ematea.
 - Ustialekua IBR gaitzaren aurka egoki txertatuta egotea

- **IBR3-T IZATEKO:**
 - gE+ emaitza emandako animalia guztiak kentzea
 - Azkenengo gE+ animalia kendu zenetik gutxienez 30 egunetara ustialekuko animalia guztiei frogak egin eta guztiek gE- ematea.
 - Ustialekua IBR gaitzaren aurka egoki txertatuta egotea
 - Aurrerantzean IBR txertaketa gehiago ez egin eta IBR4 izateko bidean trantsizioa eskatzea (azkenengo urtean birusaren zirkulazioa antzeman bada ez da gomendagarria)

- **IBR4 IZATEKO:**
 - Ezinezkoa da: IBR4 izateko, azkenengo bi urteetan ez da IBR txertaketarik egin behar. IBR1- ustialekuek animaliak txertatuta eduki behar dituztenez, ezinezkoa da IBR1-etik zuzenean IBR4ra pasatzea.

IBR2 IZANDA:

- **IBR3 IZATEKO:**
 - gE+ emaitza emandako animalia guztiak kentzea
 - Azkenengo gE+ animalia kendu zenetik gutxienez 30 egunetara ustialekuko animalia guztiei frogak egin eta guztiek gE- ematea.
 - Ustialekua IBR gaitzaren aurka egoki txertatuta egotea

- **IBR3-T IZATEKO:**
 - gE+ emaitza emandako animalia guztiak kentzea
 - Azkenengo gE+ animalia kendu zenetik gutxienez 30 egunetara ustialekuko animalia guztiei frogak egin eta guztiek gE- ematea.
 - Ustialekua IBR gaitzaren aurka egoki txertatuta egotea
 - Aurrerantzean IBR txertaketa gehiago ez egin eta IBR4 izateko bidean trantsizioa eskatzea (azkenengo urtean birusaren zirkulazioa antzeman bada ez da gomendagarria)

- **IBR4 IZATEKO:**



- Ezinezkoa da: IBR4 izateko, azkenengo bi urteetan ez da IBR txertaketarik egin behar. IBR2 ustialekuek animaliak txertatuta eduki behar dituztenez, ezinezkoa da IBR2tik zuzenean IBR4ra pasatzea.

IBR3 IZANDA:

- **IBR3-T IZATEKO:**
 - Aurrerantzean IBR txertaketa gehiago ez egin eta IBR4 izateko bidean trantsizioa eskatzea (azkenengo urtean birusaren zirkulazioa antzeman bada ez da gomendagarria)
- **IBR4 IZATEKO:**
 - Ezinezkoa da: IBR4 izateko, azkenengo bi urteetan ez da IBR txertaketarik egin behar. IBR3 ustialekuek animaliak txertatuta eduki behar dituztenez, ezinezkoa da IBR3tik zuzenean IBR4ra pasatzea.

IBR3-T IZANDA:

- **IBR4 IZATEKO:**
 - IBR3-T kalifikazioa eskuratu zuenetik bi urtetara, ustialekua IBR4 izatera pasatzen da.

3.- USTIALEKUEK DUTEN IBR KALIFIKAZIOA OKERRAGOTZEKO BALDINTZAK

Ustialeku batek duen IBR kalifikazioa ondorengo kasuetan okerragotzen da:

- Animalia berriak sartzean:
 - Animalia berrien jatorrizko ustialekuak kalifikazio okerragoa duenean
 - Animalia berrien analisisiek emaitza positiboak eman dituztenean
- Ustialekuko animalia baten jarraipen analisisetan gE+ emaitzak aurkitzen direnean
- Txertatu behar diren ustialekuetan txertaketa behar bezala egiten ez denean
- Txertatu behar ez diren ustialekuak (IBR3-T eta IBR4) txertatzen direnean.